



BALIO PROPOSAMENA

KULTURA KAFETEGIA

Esperientzia globala leku bakar batean: “mundu kafea”

Hiru hilabetero kafetegiaren tematika aldatu egingo da, herrialde berri batean oinarrituz. Hori egiteko herrialde horren musika, jarriko dugu gauetan, karaokearekin batera, herrialdearen **janari eta edari tipikoak** prestatuko ditugu, gure uniformearen herrialdearen janzkera tipikoa izango da eta dekorazioa ere herrialde horretan oinarrituko da. **Herrialdearen tradizioak jarraitzen** saiatuko gara, adibidez, Japon tokatzen denean lurrean jango da han horrela egiten delako. Hau egin nahi dugu **bidaiatzeko diru edo baliabide nahikorik ez duten pertsonak** gutxinaka mundua pixka bat gehiago ezagutu ahal izateko eta **kultura berriei buruz ikasteko**. Esperientzia gogoratzeko, herrialde horretako souvenirrak erosi ahaliko dituzte. Hiru hilabeteetan hamar aldiz edo gehiago etortzekotan, souvenir bat oparituko diegu.

KAFETEGI EKOLOGIKOA

Beste alde batetik, aipatu beharra dago **gure kafetegia %100 ekologikoa** izango dela. **Sahiestu egingo dugu plasikoaren erabilpena**, paper birziklatuarekin ordeztuz. **Ur eta energia gastu minimoa** egingo da, eta energia iturri guztiak bererabilgarriak izango dira. Hare gehiago, gure kafetegiaren teiltuan eguzki plakak jarriko ditugu, **gure kafetegia guztiz autosufizientea** bihurtuz. Kafetegiaren sarreran arropa eta beste gauza batzuk birziklatzeko ontzi batzuk erraztuko ditugu. Kafe honi esker ez da izango hain beharrezkoa bidaiatzea eta beraz, hegazkinen kontaminazioa, adibidez, murriztu egingo da.

TAILERRAK: GASTRONOMIA, EKOLOGIA, FEMINISMOA

Azkenik, gure kafetegiak **ekintza berezi batzuk** antolatuko ditu tematika aldatzen dugunaldi bakoitzean. Tematika estreinatzen dugun lehenengo egunetan herrialde horretako hiru pertsona etorriko dira. Lehenengoa **bertako sukaldari ezagun bat** izango da. Berarekin tailer bat egongo da, non nahi duten pertsonak erakutsiko dion nola sukaldatu herrialde horretako plater ospetsuena. Pertsonak arrezeta jarraituko dute eta ondoren sukaldatutakoa jan egin ahaliko dute. Bigarren pertsona herrialde horretako **ekologista famatu bat** izango da, herrialde horretako ekologiarari buruz tailer bat burutuko duena. Azkenik, herrialde horretako **femismoan espezializatua den emakume bat** etorriko da, femismoaren inguruan tailer bat emango duena, azalduz nola den emakumeen egoera herrialde horretan. Horrela, gure kafetegitik hainbat herrialdeen kultura sakonean eta lehenengo pertsonak ezagutzeko aukera izango dute bezeroek.

Laburbilduz, gure kafetegia berritzailea da, inguruan ez dago antzekorik eta esperientzia berriak eskaintzen ditugu.